

## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Keinuak



UXUE APAOLAZA LARREA

A smatuz gero, ziur asko, eraginkorragoa da keinu bat, hitz bat baino. Zenbat bider esan eta ezeztatu dugu mila hitzek irudi batek baino gehiago balio dutela. Barkatu, alderantziz da. Ez da bakoitzak zenbat balio duen, da zertarako. Zerbait ulertzen burua bihurritu nahi duenarentzat hitzak, den-dena ulertu eta arakatu gabe ekiteko gai denarentzat (batzuetan nahikoa da den-dena baino lehen) keinuak, irudiak.

Estatu Batuetako zapaldua izateak beste edonongoa izateak baino foku gehiago ditu, eta horregatik iritsi zaizkigu hango keinu gehiago, autobusean non eseri zen, ukabila zein podiumetan altxatu zuen, nori esan zion joan zuek Vietnamera.

Gurean ere baditugu gogoangarriak, Sevillatik agurtu gintuzten Giralduak, kasu. Eta Gran Hermanora sartu zirenekoa. Orduan, ordea, efektu handiagoa izan zuen lehiakide batek emandako erantzunak: "horrelak ez mutiko, horrelak ez".

Gertuago, denboran, Jagoba Arrasate galdera gaztelaniaz entzun bitartean haserrea ur tragoka isilduz, "euskaraz erantzungo dizut" esan aurretik. Aissa Intxausti, (Sarasua), beti kantzelatuta dauden gure atalak gure eta libre aldarrikatzen.

Eta, azkena, Nico Williams, eraso arrazistak bakarka jasanez, partiduak aurrera zerraienez Frente Atlético faxistak beren eserleketan, melanina ukabil, azala alde-rantzikatuta, gola ospatzeko belztasunari zaplaztekoka, Aitor Zabaleta hil zutenen masailetan. Hitzak, bakoitzaren kontu. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Euskara

Eibarko udaltzain bat euskararen ezagutzatik salbuetsi du epaitegi batek. Udaltzaina 1992tik ari da lanean euskararen eskakizuna zuen lanpostu batean, eta egonkortze prozesuko lehiaketan euskarak baldintza gisa jarraitzen zuen. Udaltzainak helegitea jarri eta epaileak arrazoi eman dio.

## Kultura

Makusi jaio da, haur eta gaztetxoentzako euskarazko lehen plataforma. Makusi Kluba aktibitateen komunitatea ere badakar EITBren proiektuak. Adinaren arabera kontrol sistemak ditu Makusik gurasoen eskura, eta eduki bakoitzaren "balioen fitxa" bat ere bai.

## Hezkuntza

Neskek gaitasun matematiko eta zientifikoekiko txikitatik duten pertzepzio, autopertzepzio eta bizipenen eraginez (antsietate matematiko handiagoa dute adibidez, eta konfiantza falta handiagoa), zientzia arloko ikasketetatik urrundu ohi dira. Hala dio ikerketa berri batek.